

11. Gaia: Euskararen historia: sarrera eta oinarrizko kontzeptuak

Bigarren Hizkuntza II: Euskara

2018/2019

Ricardo Gómez

Bibliografia pixka bat

Lakarra, Joseba A., 1997, “Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri”, *ASJU* 31:2, 447-535.

Mitxelena, Koldo, 1963, *Lenguas y protolenguas*, Salamanca: Universidad. Berrargit. (*ASJU*ren gehigarriak, 20), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1990.

Egitura

1. Hizkuntzaren historia eta historiaurrea
2. Euskararen historia
3. Filologia eta Hizkuntzalaritza historikoa
4. Euskal testu corpusaren ezaugarri nagusiak
5. Periodizazioa eta kronologia

1. Hizkuntzaren historia eta historiaurrea

- Hizkuntzak (euskara) aldatzen dira
 - lekuz leku
 - urtez urte
- Dialektologiak lekuz lekuko aldaketa
- Diakroniak urtez urtekoa?
 - EZ: **bi ardatzak** aldi berean

1. Hizkuntzaren historia eta historiaurrea

- Aldaketa diakronikoa nonahi sumatzen: ahozko hizkuntzan
 - etxean bertan
- Testu zaharretan nabarmenago:
 - 3. *Aberassoc jaya daude, chiro gajooc veti neque, auçooc vere yguy daude veti dabilena esque*, "Los ricos tienen fiesta y los pobres cuytados siêpre trabajo, los vezinos también aborrecen siempre al que anda pidiendo".
 - 10. *Aspertu banequio, asper lequiquet*, "Si me le yo vêgasse, vêgarse meya".
 - 52. *Vnayoc arri citean, gastaec aguir citean*, "Los pastores riñieron, los quesos pareścieron".
 - 246. *Oguiagaz hura, oragaz heroen elicatura*, "Pan con agua, mantenimiento de loco y mastín".

1. Hizkuntzaren historia eta historiaurrea

- Testuek urtez urteko aldaketaren berri:
 - *RS* (Bilbo?, 1596):
 - Txistukarien oposaketa **auço, oguiagaz...**
 - Aditzi-zenetan -ETA:
 - 7-8 aukeretako bat
 - -tze-rekin lehian, gutxiengoan
 - Mikoleta (Bilbo, 1653)
 - Txistukariak neutralizatu **seure, selan, euracas...**
 - Aditz-izena **almorzetan, brindetan, betetan...**

1. Hizkuntzaren historia eta historiaurrea

- Historia
 - **zabal:** gertakariak hurrenkera kronologikoan
 - **estu:** lehen lekukotasunetik aurrera
- Hizkuntzaren historia
 - **zabal:** bilakabide osoaren azterketa diakronikoa
 - **estu:** lehen testuetatik aurrera
- **Historia vs. Historiaurrea**
 - Muga lausoa
 - **Protohistoria**

1. Hizkuntzaren historia eta historiaurrea

- **Barneko historia eta kanpoko historia**
 - **Barneko historia:** Hizkuntz sistemaren bilakabidea, hizkuntzaren osagaien historia (= Gramatika Historikoa)
 - **Kanpoko historia:** Hizkuntzak munduarekin duen erlazioa, hiztunen historia (geografia historikoa, ukipen-harremanak, egoera soziolinguistiko eta kulturala...)

2. Euskararen historia

- **Euskara denboraz kanpoko hizkuntza?**
 - Tradiziozko ustea
 - “Hizkuntza fosilak”
 - Izenen engainagarritasuna
- **Hizkuntza isolatuen historia egiterik ez?**
 - Meillet (1925)
- **Mitxelenaren bidea (vs. enigma lilura)**
 - Historia ≠ Historiaurrea (Historia badu)
 - Historiaren lehentasuna
 - Hizkuntza isolatua?
 - Konparaketa eta barne berreraiketa (besteak beste)

2. Euskararen historia

- **Hizkuntz historiaren egitekoak**

- Giza hizkuntzak = aldakorak
- Badakigu euren historia berreskuratzen eta euren historiaurrea berreraikitzen
 - Historia berreskuratu
 - lekukotasunak (testuak) bilduz eta aztertuz
 - Historiaurrea berreraiki:
 - Konparaketa: familiakideak konparatuz arbasoen berri lortzen da.
 - Barne berreraiketa: garai bateko hizkuntzak aurreko garaietako hizkuntzaren berri gordetzen du.

3. Filologia eta Hizkuntzalaritza historikoa

- “Historiaurrea historiaren ganean bakarrik eraiki daiteke, lekukotuta dauden **hizkuntz egoeren** ganean, eta ez da existitzen historiaren arabera baizik, hizkuntz egoera horiek argitzeko balio duen heinean”
- “Historiaurreari lasai ekiteko, eskura dauden datuak ahalik hobekiena **ezagutzen** ahalegindu beharko gara, deus ere alde batera utzi gabe eta **biltzeko zein egiaztatzeko** eginahalak eginda”

3. Filologia eta Hizkuntzalaritza historikoa

- **Historiaren lehentasuna.** Mitxelena, *Lenguas y protolenguas* (1963)
 - Datu historikoen bidez **dakiguna** vs. **hipotesiak** (vs. **usteak** vs. **desioak**...)
 - Historiaurrea historiaren gainean bakarrik eraiki daiteke
 - Historiaurrea hizkuntza historikoa argitzeko balio duen heinean da interesgarri
 - Historiaurreari buruz oinarririk gabeko hipotesirik egiten dabilzanentzat
 - Dialektologoentzat, sinkronistentzat...

3. Filologia eta Hizkuntzalaritza historikoa

- **Testuak lekukotasun (ia) bakar**
 - Giza hizkuntza grabatzeko gauza diren tramankuluak: gramofonoa (1887)...
- **Filologiaren oinarriak**
 - Testuak **bildu eta egiaztatzeko** jarduna
 - Lehenagoko testuak denborak egindako kaltetik eta denborak eragindako ulertezinetik gorde beharrak sortua
 - Filologia zorrotzago, lekukotasunak baliotsuago
- **Sinbiosia**
 - Datuak zein diren eta nola erabil daitezkeen
 - Arazoak non dauden (azterketa gidatu)
 - Testuak aztertu eta interpretatu hizkuntzaren historiari buruzko informazioa erdiesteko

3. Filologia eta Hizkuntzalaritza historikoa

- **Corpusa nolakoa den eta horren arabera:**
 - Lehenagoko hizkuntz egoera batzuen berri zuzena
 - (vs. dena berreraiki beharra)
 - Hizkuntz egoera desberdinen arteko konparaketa egiteko aukera
 - Garai desberdinetako testuak
 - Leku desberdinetako testuak

3. Filologia eta Hizkuntzalaritza historikoa

- **Testuen mugak: maiz ez dira nahiko genukeen bezain fidelak**
- **Ohiko arazoetako batzuk:**
 - Idazkerak hizkuntzan dauden oposaketak zehaztasun gutxiz ordezkatzea, edo ez ordezkatzea batere
 - *yguy (RS 3), gastaec (RS 52)*
 - *aça /s/* eta *açamarra /ts/... bulçaca /s/ ala /ts/?*
 - Idazkera berez kontserbatzaile (arauak/ereduak/tradizioak)
 - *eGingo, deGu, astakeriA bat*
 - Literaturaren askatasuna (lizentzia poetikoa, idazlearen sormena...)
 - Itzulpengintza
 - Testu bakoitzaren berezitasunak

3. Filologia eta Hizkuntzalaritza historikoa

- **Lekukotasun edo dokumentazioa:**

- Forma bati buruz, delako hizkuntza batean forma hori argi eta garbi aurkitzen delako edo zelako **froga nabaria** (“agerraldia”)
- Eskuarki **testuetan** aurkitzen ditugu
 - “lehen lekukotasuna” *zagita (1665 apud EH)*
 - “lehen lekukotasuna aurreratzea” *zagita (c. 1602)*

- **Berreraikitako forma:**

- Berreraiketaren bitartez lortzen den **forma hipotetikoa**, ondokoak azaltzeko balio duena (= euren arbasotzat proposatua)
*ardao, ardo, arno... < *ardano*

3. Filologia eta Hizkuntzalaritza historikoa

- **Zeharkako lekukotasunak:**
 - Beste hizkuntza bateko testuetan
 - Toponimo-antroponimoak
 - Akitaniako idazkiak (latinez)
 - Erdi Aroko dokumentazioa (latinez eta erromantzez)
 - Erreferentziak
 - Madariaga (*Honra de escribanos*, 1565): “La N alguna vez se pronuncia escondida en las narices, como en *oracioa*, *ardaooa...*”.
 - ...

3. Filologia eta Hizkuntzalaritza historikoa

- **Bigarren mailako lekukotasunak:**

= Metahizkuntza

- Gramatikak, hiztegiak...

- Landucci (Gasteiz, 1562):

- *alcahueteadu* “alcahuetear”

- *almoxarifea* “almoxarife” (zerga-biltzaile mota bat)

- Urte (Donibane Lohitzune, 1715):

- *hegoalde kontrako uztaia* “circulus antarticus”

4. Euskal testu corpusaren ezaugarri nagusiak

- **Corpusaren izaera**
 - denboraren aldetik (noiztik)
 - edukiaren aldetik
 - dentsitatea
 - jarraitutasuna
 - aniztasuna (dialekto, hizkuntza-maila, testu-mota)
- **Corpusaren egoera**
 - eskura?
 - edizio kritikorik?
 - monografiarik?

4. Euskal testu corpusaren ezaugarri nagusiak

- **Euskal corpora laburbilduta:**
 - izaera
 - [zerekin konparatzen dugun]
 - berankorra
 - urria
 - asimetrikoa
 - homogeneoa
 - egoera: eskasa
 - ikerketak urri eta sakabanatuak
 - datuak eskuragaitz eta sistematizatu gabeak

4. Euskal testu corpusaren ezaugarri nagusiak

- **Oso berankorra**
- **Hasiera:**
 - historia: 1545
 - protohistoria: K.o. I. mendea
- **Historia luzeagoa:**
 - **Katalana:**
 - historia: Erdi Aroan
 - Ramon Llull (1235-c.1316)
 - **Indoeuropea:**
 - hititera: K.a. II. milurtekoan

4. Euskal testu corpusaren ezaugarri nagusiak

- **Oso urria**
- 1900 arte oso urria
- 1745 arte
 - Hegoaldean 500 folio ez
 - Iparraldean 5000 ez
- Lope de Vega
 - 314 komedia ziur, 100 bat ia ziur
 - 3000 bat soneto
 - ...
- Ramon Llull
 - 7.000 hitz inguru
- Shakespeare
 - 15.000 bat
- Etxepare
 - 1.300 (goitik jota)
- Leizarraga
 - 5.300 (goitik jota)

4. Euskal testu corpusaren ezaugarri nagusiak

● Oso asimetrikoa

● Euskalkien arteko aldeak:

- XVI. B, A, L, BN
- XVII. B, L, GN, Z
- XVIII. B, A, G, GN, L, BN, Z

● A

- arkaikoa (Lcc, Laz, Bet, Portal)
- LEM: Gamiz (c.1760), Albeniz (1778)

● GN

- *Santxo Eltsokoa (1561)
- Beriain (1621)
- Elizalde (1735)
- Bonaparte (Lizarraga Elkanokoa)
- Satrustegi & Irigarai

● G

- Otxoa Arin (1713)
- 1745 b.l. 3
- 1745 o. 50etik gora

● BN

- Etxepare (1545) → A. Rodriguez (1782)

● Erronkaria

- XVI. m.buk. esaldi bat
- 1616ko gutunak (dozena bat)
- Bonaparteren itzulpenak

● Bonaparte (1850az gero)

- lehen lekukotasun asko

4. Euskal testu corpusaren ezaugarri nagusiak

- **Oso homogeneoa**
- 1900 b.l. %80-90 erlijiozkoak
 - “Ezin esan gure literaturan deboziozko liburuak gehiegi direnik. Diogun, bada, bestelakoetan eskas gabiltzala” (Mitxelena 1953)
 - “...lehen aldiz argitaratutako obrak bakarrik harturik, guztira 326 baino ez dira 1875era bitartean argitaratuak. Horietatik itzulpen-moldaketak ken balitez, eta literatur parametro hutsetan ezin sar litezkeenak ere iragazi ondoren, nekez irits litezke dozena batera zinezko literatur obratzat har daitezkeenak” (Salaberri Muñoa 2002: 18)

4. Euskal testu corpusaren ezaugarri nagusiak

- **Homogeneotasuna + urritasuna = mugak**

- Lexikoan hutsune larriak
 - lehoi (*1562, 1762; *lehoi* 1571, *lehoñ* 1627)
 - elefante (*1562, 1653; *elefant* 1630)
 - igaraba (*1745, 1847; *igarabi* 1802)
 - untxi (*1745, 1842)

- Egiturak

- agintera / subjuntiboa, alegiazko baldintza?
- aspektu / denbora
- perpaus laburrak
- estilo arrunta

4. Euskal testu corpusaren ezaugarri nagusiak

- **Corpusaren egoera**
- Testu corpora hazten, informazioa nekezago:
 - ikerketa urri eta sakabanatuak
 - Barneko historia:
 - Hualde, Lakarra & Trask (1995) *Towards a History...*
 - Trask (1997) *The History of Basque*
 - Kanpoko historia:
 - Intxausti (1990) *Euskara, euskaldunon hizkuntza*
 - Biak:
 - Martínez-Areta (2013) *Basque and Proto-Basque*
 - *Euskararen historia* (argitaratzeko)
 - datuak eskuragaitzak eta sistematizatu gabeak
 - *OEH* (1987-2005)
 - baliabide elektronikoak, internet...

4. Euskal testu corpusaren ezaugarri nagusiak

- *Orotariko Euskal Hiztegia*:
<http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>
- Klasikoen gordailua: <http://klasikoak.armiarma.eus/>
- Liburuklik: <http://www.liburuklik.euskadi.net>
- Sancho el Sabio Fundazioaren Liburutegi Digitala:
<http://www.euskalmemoriadigitala.eus/>
- Bizkaiko Foru Liburutegiaren Liburutegi Digitala:
<http://www.bizkaia.eus/foruliburutegia>
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Repositorio Digitala:
<http://meta.gipuzkoakultura.net/>

5. Periodizazioa eta kronologia

- **Periodizazioaren ohitura**
- **Ziurtasuna**
 - izen jakinak (*ancien français, Middle English, Neuchochdeutsch...*)
 - denborazko muga jakinak
 - hirutan: zaharra, ertaina, berria
- **Ez horrelakorik beti**
 - ziurtasunik ez
 - (XV. m. arte) *castellano antiguo, español preliterario, español medieval, periodo primitivo*
 - castellano antiguo = español medieval?
 - beti hirukoitzik ez
 - castellano antiguo (g.g.b. 1500 arte)
 - castellano moderno (1500dik aurrera)

5. Periodizazioa eta kronologia

- **Periodizazioa zertarako?**
- Praktikoa
 - Aldaketa nagusiak ulertzeko
 - Hizkuntz datuak hobeto antolatzeko
- Historiaren azterketarako onuragarria
 - Zorrotzago deskribarazten
 - Hobeto analizatzen laguntzen
- Periodizazio egoki eta eraginkor bat behar

5. Periodizazioa eta kronologia

- **Periodizazioaren oinarriak**
- Kanpoko historian oinarritu
 - Historiako gorabeherak (gertakari politikoak)
 - Literaturaren historia
 - Corpusaren izaera
- Barneko historian oinarritu

5. Periodizazioa eta kronologia

- **Barneko historian oinarritu**
- **Hizkuntz atal guztietan oinarritu?**
 - fonologia
 - gramatika (morfosintaxia)
 - lexikoa
- **Ingelesa**
 - i. zaharra (450-1150) → flexio osoa
 - i. ertaina (1150-1500) → flexio murriztua
 - i. modernoa (1500dik a.) → flexiorik ez
 - funtsezko aldaketa fonologiko eta sintaktikoak ere

5. Periodizazioa eta kronologia

- Atalen arteko hierarkiarik?
 - Gramatikaren lehentasuna
 - iraunkor eta aldagaitzena
 - Oinarrizko lexikoa?
 - Fonologia txineran
 - Ondorioa: **Hizkuntzaren arabera hautuak?**
- Atalen arteko bat-etortzerik?
 - Batzuetan
 - Garaia mugarri

5. Periodizazioa eta kronologia

- Konbentziozko sailkapen hutsik ez
- Barneko historian bakarrik?
 - Batzuetan ezinezkoa
 - Bestetan intuizioaren aurkakoa
- Kanpoko historia barnekoaren...
 - ispilu eta adierazgarri (pedagogiko eta argia)
 - euskarri (vs. datazio erlatiboa)

5. Periodizazioa eta kronologia

- **Periodizazioaren arazo orokorrak**
 - Hizkuntzaren sail ezberdinak bateratu ezina
 - Irizpide ezberdintasunak
- **Euskal periodizazioaren arazoak**
 - Garai hipotetikoak
 - Jauziak
 - Hegoalde eta Iparralde

5. Periodizazioa eta kronologia

Lakarraren periodizazio saioa (1997)

1. Akitaniera (I-III. mendeak)
2. Erdi Aroko euskara (IX-XV. mendeak)
3. Euskara arkaikoa (1545-1600 arte)
4. Euskara zahar eta klasikoa (1600-1745)
5. Lehen euskara modernoa (1745-1890)
6. Azken euskara modernoa (1891-1968)
7. Euskara batua (1968-)

5. Periodizazioa eta kronologia

Aitzineuskara zaharra

Aitzineuskara berria (duela 2000 urtetik atzera?)

1. Akitaniera (I-III. mendeak)

Euskara Batu Zaharra (VI-VIII. mendeak?)

2. Erdi Aroko euskara (IX-XV. mendeak)

3. Euskara arkaikoa (1400-1600 arte)

4. Euskara zahar eta klasikoa (1600-1745)

5. Lehen euskara modernoa (1745-1890)

6. Azken euskara modernoa (1891-1968)

7. Euskara batua (1968tik aurrera)

5. Periodizazioa eta kronologia

- **Erronka berria: kronologia**
- **Kronologia motak**
 - zehatza
 - 1562
 - c. 1564
 - XVI. m.
 - Erdi Aroan
 - ...
 - erlatiboa
 - Plurala sortu $a + a > ea$ gertatu ondoren
 - sing. *alabea* vs. plur. *alabaak*

5. Periodizazioa eta kronologia

- **Maileguen kronologia**

- zehatza: *bake, zeru, klase*

- erromatar garaikoa
- erromantze goiztiar garaikoa
- erromantze berrikoa

- **Aldaketen kronologia**

- erlatiboa: *ezkon-tu > ezküntü / **ezküntü*

- o > u
- u > ü